

Ainara Azpiazuk irabazi du lehenengo 'Argazki rallya'

■ Gaztetxoetan Laia Sola gelditu da irabazle ■ Ostegunean egin zuten sari banaketa Biteri kultur etxean ■ Aurrera lehiaketa gehiago egiteko asmoa dute.



Sarituak eta zenbait parte hartzaile Biterin, sariak banatu eta gero.

SAN Joanetan lehenengo Argazki rallya egin zen Hernanin. Denera 49 argazkilari aurkeztu ziren, Hernanikoak nahiz Hernanitik kanpokoak.

LAU GAI

Rallyan lau gai jarri zituzten argazkitan ateratzeko: Hernaniko txokoa, Hernaniko arbolak, natura eta Santa Barbara. Parte hartzaile bakoitzari karrete bana eman eta denbora batera jaso zituzten argazkiak bueltan.

HERRIKOEN PAPER ONA

Argazkilari elkarteko izen haundiak aurkeztu badira ere, hernaniarrek oso paper ona egin dute. Txapeldun Ainara Azpiazu hernaniarra gelditu da, Joakin Garcia eta Juan Jose Alonso adituen aurretik. Laugarren eta seigarren postuetan ere hernaniarrak gelditu dira: Juan Jose Cano eta Axier Goia, oso puntuazio onarekin gainera.

TXIKIEN AUSARDIA

Gazteen mailan Laia Sola gelditu da irabazle, Jon Ander Gomez bigarren eta Dorleta Garzia hirugarren. Sailkapen orokorrean ere oso aurrera gelditu dira gainera (14, 21 eta 25garren postuetan), zenbait kasutan gurasoen aurretik. Mari Sol Yaben antolatzailearen hitzetan "helduak baino

ausartagoak dira txikienak".

Inon ez bezala izen ematea debalde izan da Hernaniko rallyan; besteak beste J. A. Torres argazki dendak materiala eta rebelatua jarri dituelako, Etxarri Argazkidendak sariak jarri dituelako eta udalak diruz lagundua izan delako. Anto-latzaileek eskerrak eman nahi izan dizkiete guztiei. □



Ainara Azpiazuk Santa Barbarari ateratako argazkietako bat.

Hernani-Ubis 'A' ligako estropadetan ibiltzeko postu bila, gaur eta bihar

■ Aurreneko 16etan sartuta, 'A' Ligan 4 estropada egingo ditu ■ Gaur eta bihar, 18:45etan, Pasaian.



Kronometroak aginduko du gaur eta bihar.

HERNANI-Ubisek denboraldiko bi estropada garrantzitsuenak jokatuko ditu, gaur eta bihar: Ligarako sailkapena. Erlojupeko estropada da eta 31 traineruak bi minutuz behin aterako dira. Hernani-Ubis, 20-

garren aterako da, *Kaikuren* atzetik. Gaurko sei onenak zuzenean urrezko ligan sartuko dira eta biharko bi onenkin osatuko da taldea. Gaurko denborek biharko balio ez dutenez, Hernanik bihar jo beharko du.

■ PELOTA - HERRI ARTEKOA

Hernani-Azkoitiak 3-4garren postua jokatu dute gaur

■ Zarauzko frontoian arratsaldeko 16:30etan ■ Pelota elkarteak autobusa jarri du debalde: 15:45etan Atsegindegin ■ Finala igandean: Aretxabaleta-Soraluze. 10:30etan Donostiako Atano IIIan.

Fono tel
norte

Produktu hauek aurkituko dituzu gure denda berrian :

- 1050
- Interneta
- Telefonía mugikorra
- Telefonía fijoá
- Zentralitak
- Faxak



Banatzaille Ofiziala

Euskaltel

Kardaberaz kalea 68
Tel.: 943 33 60 25
Faxa: 943 33 50 79
20120 Hernani

Telemar

ITXASTELE S.L.

Telyco denda

Elkano 13, HERNANI ☎ 943 33 26 00

ESKEINTZAK:

ordenagailuak:

INTEL PENTIUM 4 (128 MBko memoria, 15"ko monitorea, 8 MBko 3D AGP tarjeta grafikoa,...)

109.900 Pta + %16ko Bez a.

AIRIS 2066 Portatila (AMD K6II 400 Mhz ko prozesatzailearekin, 10 GBeko diskoa gogorra, 12,1"eko HPA pantalla,...)

149.900 Pta + %16ko Bez a.

- ⇒ 'Telefonía'ko banatzailea
- ⇒ Movistar
- ⇒ Zentralitak
- ⇒ Faxak
- ⇒ Telefonía mugikorra
- ⇒ "Via digital", inalanbrikoak,...

mobila:

PACK PHILIPS



14.900 pta (10.000 deietan).

ETXE ONENAK. S.A.

GARAJE ITXIAK
'OBLATOS'ETAN
SALGAI

Informatu eta saldu:

☎ 943 33.22.37

SAN FERMIN JAIK MARTINDEGIN

Auzoko hildakoen aldeko meza, preso eta errefuxiatuei lore eskaintza, eta 'Kronika' sega txapelketa gaur

■ Meza 11:00etan da ■ Eguerdian herri bazkaria egingo da ■ Euria ari badu, sega txapelketa atzeratu egingo da ■ 'Laiotz' taldeak animatuko du gaua.



Martindegiko gazteak atzoko bazkarian festetarako indarrak hartzen.

ATZOKOARI ia bukatzeko berarik eman gabe hasiko da gaur festa Martindegin, 07:30-etan kalejira baitago. Eguer-diko ekitaldirik jendetsuenetakoa auzoko hildakoen aldeko meza izaten da. Oialumeko terrazan izaten da eta urtero biltzen da jende asko. Meza ondorenean, tabernak hamaiketako ematen die auzoko jubilatuei.

OMENALDIA

Juan Mari Ormazabal *Turko* zenak auzotarren omenaldia jasoko du. Horrekin batera, *Otsua* bertako presoari eta

Martindegiko errefuxiatuei lore eskaintza egingo zaie.

Ordubietan ezkonduak solteroen kontra sokatiran aritu eta denak herri bazkarira. Arra-tsaldean, ateri bada, Mar-tindegik, Osinagak, Portuk eta Kro-nikak segan probatuko du-te elkar. Euria ari badu atzeratu egingo da.

Festarik politena goizaldera etorri liteke: *Platano-dantza* txapelketan. Bi lagun artean heldu ahoarekin platano bati mutur banatatik eta egin dantza. Platanoa puskatzen ez zation bikotea, hura txapelkun. □

EGITARRAUA

07:30etan: Kalejira.
08:00etan: Lo kuluxka.
11:00etan: Meza.
11:30etan: Auzoko baserrietan barrena 'Mobida'.
13:30etan: *Turkori* omenaldia eta auzoko preso eta errefuxiatuei lore eskaintza.
14:00etan: Sokatira. Ezkonduak solteroen kontra.
14:30etan: Herri bazkaria.
16:00etan: Gaztelu puzgarria.
17:00etan: Kukaña.
18:00etan: Zezen eta zalditxoak.
19:30etan: Sega txapelketa.
24.00etan: Laiotz.
Goizaldera: Platano dantza.

UDALEKU IREKIAK

San Ferminak... Langilen eta Elizatxon

■ Plazan egitea pentsatutako festa euriagatik ezin izan zuten egin.



Udalekuetako umeak San Fermin kantua abesten, atzo Elizatxon.

ATZOKO euriak ez zien udalekuei Hernaniko belazeei adinako onik egin. 5-9 urte bitarteko umeek San Ferminak ospatu behar zituzten

Gudarien plazan, pregoi, trikiritxa eta guzti. Eguraldiak lagundu ez zuenez, festa bi puska egin eta aterpera eraman behar izan zuten.

Batzuk Laubidietara eta besteak Elizatxora. Pregoia irakurri zen eta baita San Fermin kantua ederki asko abestu ere!

Saharako umeak atzo iritsi ziren Hernanira

■ Udara Hernaniko familietan pasatzera etorri dira
■ Datozen egunetan gehiago ere etorriko dira.

Aurrera dioa Hernanin 'Bai Euskarari' akordioa

■ Bi langile behar dira 'Euskararen Normalkuntzarako Egitasmoa' martxan jartzeko.

BAI Euskari akordioa herrietara zabaldu da. Hernaniko Jarraipen Batzordeak bidalitako prentsa oharrak dioenez *Euskararen Normalkuntzarako Egitasmoa* martxan jar-

tzeko bi langile behar dituzte, gutxienez urtebeterako. Hernanin bizi eta euskalgintza ezagutzea eskatuko da. Euskara Zerbitzura jo utzailaren 18a baino lehen, goizez. □

MENDIRIZ MENDI

Asteburua Pirineoetan, gaur goizean goiz aterata

■ Pineta-Tucarroya-Piméné (2.801 m)- Gavarnie-Bujaruelo mendi ibilaldia egingo dute.

MENDIRIZ Mendik gaur eta bihar Pirineoetan egiteko travesia antolatu du. Mendizaleak gaur goizeko bostetan aterako dira Atsegindegitik. Igoko duten mendirik altuena Piméné da, 2.801 metrokoa.

IKASI ESKALATZEN Urtero bezala, Mendiriz Mendik eskalatzen ikasteko kurtsiloa antolatu du utzailaren 14-15erako. Ostegunean (12) zortzietan da izena eman eta ikastaroa moldatzeko bilera. □

Plater tiraketako 'T.O.K.E. Hernani Sari Nagusia'

■ Igandean jokatu da Legazpin ■ 'Foso unibertsala' modalitatean da ■ Txirta elkarteak antolatu du.

DATORREN igandean Legazpian plater tiraketako T.O.K.E. Hernani Sari Nagusia jokatu da Legazpian. Txirta elkarteak Kronikara bidalitako prentsa oharrak dioenez, tiraldia *Foso unibertsala* modalitatean egingo

da, Santa Barbaran egiten den modalitate berean. Irabazleak 300.000 pta dirutan eta beste sari batzuk eramango ditu. Tiraldia goizeko 11:00etan hasi eta egun guztikoa izango da. Kirol patronatuaren laguntzaz antolatu du Txirtak. □

HERIOTZAK

Maria Pilar Lizeaga Arbiza
Ostegunean hil zen 73 urte zituela

ZERBITZUAK

☎ TELEFONOAK

► Taxiak: 943 550093
► Udaltzaingoa: 943 333288
► DYA: 943 464622
► Autobusak: 943 556662
► Anbulatorioa: 943 557750
► Jokalari anonimoak 943 331103

☎ FARMAZIAK

► Egunez: Bulnes
Etxeberri
☎ 943 557738
► Gaez: Bulnes
Etxeberri
☎ 943 557738



Antziola-Motor Zerbitzu Ofiziala

Antziola-Motor

► Kotxe berri eta aukerakoen salmenta
► Tailer mekanikoa, elektrizitatea eta elektronika
► Aseguruen gestioa
► Finantziarioak
► Kotxeak jaso eta leku berera itzultzen ditugu

Ikusi al duzu Mondeo berria ?



Antziola Motorren ikusi eta probatu egin dezakezu.

Antziola auzoa 12 - Tel. 943 55 57 72 - Faxa 943 55 21 96 HERNANI